



Beasaingo Udala

Beasainen, bi mila eta hemezortziko urtarilaren hogeita bian

BILDURIK

Alde batetik, BEASAINGO UDALA, Aitor Aldasoro Iturbe, Alkate-lehendakari jaunak ordezkaturik, Beasaingo Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, BUZTINA ZERAMIKA ZALETUEN ELKARTEA (N.I.F.: G20611844), Maria Angeles Lorenzo Bermejo and. (NA 08903388L) Buztina Zeramika Zaletuen elkartearen Lehendakariak ordezkaturik, 2017ko uztailaren 4ko batzar orokorrean hartutako erabakiaren arabera.

AURREKINAK

I. Buztina Zeramika Zaletuen Elkarteak interesgarriak diren kultur eta hezkuntza jarduerak egiten ditu.

II. Buztina Zeramika Zaletuen Elkarteak kultur sustapenean biziki laguntzen du, urtean zehar hainbat jarduera programatuz.

III. Buztina Zeramika Zaletuen Elkarteak arte plastiko-hezkuntzako (buztina eta esmaltaketa) jarduera aipagarriak eta aldi berean espresio artistiko honi buruzko praktikan oinarrituriko lanak egiten ditu.

IV. Hitzarmen honen helburua eta Udalaren arteko harremana erregulatzea da, 2018. urtean zehar hainbat jarduera desberdin egiteko.

BALDINTZAK

LEHENA.- Buztina Zeramika Zaletuen Elkarteak urritik ekaina bitartean emango duen buztina eta esmaltaketa ikastaro bat antolatu eta finantzatzeko konpromisoa hartzen du.

BIGARRENA.- Beasaingo Udalak **2.407,86 €**-ko diru-laguntza emanez laguntzen du ikastaro horretan (1.203,93 € apirilean eta 1.203,93 € urrian) eta Urbietako Arte Plastikoetako zentroko gela bat utziz. Buztina Zeramika Zaletuen Elkarteak Zentroko arauak betetzeko konpromisoa hartzen du.

Udalak ematen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu berdinetarako elkarteak jasotzen dituen beste laguntzekin. Jasoz gero, ezagutu bezain pronto, Udalari jakinaraziko dio eta horrek hitzarmena berrikustea ekarriko du.

Buztina Zeramika Zaletuen Elkarteak bere erantzukizunpean adierazten du, betebeharriskaletan eta gizarte segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela.



Beasaingo Udala

HAMABIGARRENA.- Hitzarmen hau betetzeari dagokion guztirako, Buztina Zeramika Zaletuen Elkartek Alkatetzak horretarako izendatzen duen pertsona edo pertsonekin izango ditu zuzeneko harremanak.

HAMAHIRUGARRENA.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna babesteko klausula. Elkarreek berdintasuneko irizpideak (Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta hau aldatzen duen otsailaren 16ko 3/2012 Legea) kontuan hartuko dituzte bai elkartearen barruan bai eta sustatzen dituzten proposamenak gauzatzeko garaian ere.

HAMALAU GARRENA.- Datu pertsonalak babesteko klausula.

- A. 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) ezarritakoa betez, alegia, Datu Pertsonalak Babestekoan, alde bakoitzak erasandakoen baimen informatua lortzeko ardura izango du, hain zuzen ere, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean beharrezkoak diren beren datu pertsonalen tratamendurako. Era berean, alde bakoitzak hitzarmen honen xede diren jardueren garapenean erabilitako datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzeko ardura izango du.
- B. Elkarreak Beasaingo Udalari datu pertsonalen lagapena eginez gero, uneoro, beren datu pertsonalak lagatzeko erasandakoen baimen informatua duela bermatu beharko du.
- C. Alde bakoitzak egin litzakeen indarrean dagoen datuak babesteko araudi honen ez-betetzeetatik letozkeen ardurak bere gain hartuko ditu.

HAMABOSGARRENA.- Aurreko edozein baldintza behar bezala ez betetzeak hitzarmen hau berrikustea ekarriko du.

Eta esandako guztiarekin ados egonik, bildutakoek dokumentu hau urte beterako sinatu dute bikoizturik, goiburuan aipatutako data eta lekuan.

